



Emakume dantzari oñatiarrak

Aurtengo Korpusetan emakumiak beste urte batzuetan baiño protagonismo haundixagua euki daue. Batetik, lehenengo aldiz neskak be parte hartu daue dantza-jardun guztietan, bezperan nahiz Korpus egunian: santu-karriuan, elizan, prozosiñuan edota arratsaldeko ekiñaldixan. Eta bestetik, emakume batek apostolu jantzitta urten dau prozosiñuan, hau be estraiñekoz. Hori dala eta, pozten gauen komentariho positibuak entzun izan dittugu: “Oñatin beste leku batzuetan baiño problema gutxiago xagok emakumiak herriko jai eta gauzetan parte hartzeko orduan”, adibidez.

Gaiñera, dantzarixen haritik tiraka, batzuk gogoratu dira sasue batian neskak be ikasi zittuaila Korpusetako dantzak. Ez prozosiño ofizialian urteteko, lartxo garai hareittarako, baiña bai beste jaialdi eta erakustaldi batzuetan jarduteko. **Gerra osteko hamar-kada luzietan neskekin osotutako dantza-talde bat baiño gehixago egon zan Oñatin**, Alejandro Irizar dantza-maixuaren ardurapeian. Orduko agintarixak, *Coros y Danzas* izeneko erakunde folkloriko-politikuaren bidez, urte askuan babestu zittuain estaduko dantza desberdiñak emakumiai erakusten osten taldiak.

Gaurko argazkixan agiri diranak Oñatin Korpus-dantzak egindako lehenengo neskak dittugu; 1944-1945 inguruan. Gipuzkoako txapeldunak izatera ailegau ziran eta Madrillen bigarren sarixa atara euen. Gehixenak ezagutu dittugu eta banaka batzuk bizi dira oraindiok. Goittik behera eta ezkerretik eskumara ondorengo honeik dittuzue:

Goiko illaran: Juanito Aldanondo, txistularixa eta argiduna; Maixabel Aranguren, *Txartesena*; Maria Pilar Egaña, Bakardade Ama kaleko *Ankaluzena*; Alejandro Irizar, *Auntzola*, dantza-maixua; Gregori Ugarte, San Antue kaleko *Larrastegikua*; Milagros Erle, Kanpatxoko *Erlena*; eta Tomas Uribarri, *Danborrerotxo*.

Behoko illaran: Maritxu Zarketa, Kale Barrikua; Nati Ibarrondo, Foruen plazakua; Bixenta Arregi, Santa Marinakua; eta Irene Aranburu, Patrue kaleko *Miel Kapaiñena*.

J. E.

Fotografixa Edurne Arregik eskuratutakua da, eta argibidiak Edurne berari, Maribel Korkostegi, Joxe Arregi eta Bittori Anduagari zor dostegu. Milla esker danoiri!